

# Euskara Proba

## Irakurriaren ulermena

### DBH 4

Lehen zatia

---

225

2005



## a d i b i d e a k

### Dragoiak maite zituen jauna

Ye jaunak biziki maite zituen dragoiak; gela guztietan zeuzkan eskulturetan edo pintaturik. Zeruko benetako dragoia enteratu zenean, lurrera jaitsi eta burua sartu zuen Ye jaunaren etxeko atetik eta buztana leiho batetik. Ye jaunak dragoia ikustean, erabat izaturik alde egin zuen eta ia-ia zoraturik bukatu zuen.

Izan ere, Ye jaunak ez zituen hainbeste maite dragoiak. Dragoi itxurakoa zuen gogoko, baina inola ere ez dragoia bera.

*Txinako ipuin bat*

#### 1. Zer zuen gela guztietan Ye jaunak?

- A) Zerutik jaitsitako dragoiak
- B) Benetako dragoiak
- C) Dragoiak eskulturetan edo pintaturik
- D) Txinako dragoiak

#### 2. Zein da testuaren mamia?

**ERANTZUN IDAZTEKO EMAN ZAIZUN ORRIAN**

227

## j a r r a i b i d e a k

- \* Orain irakurri eta erantzungo dituzu horrelako galdera gehiago.
- \* Ez idatzi ezer koadernotxo honetan.
- \* Erantzun orrian marka ezazu erantzun zuzenari dagokion hizkia.
- \* Galdera irekietan, erantzun ahalik eta hobekien idazteko eman zaizun orrian.
- \* Egin lana ahalik eta lasterren.
- \* Saia zaitetz galdera guztiei erantzuten.
- \* Orrialde bakoitza bukatutakoan, hurrengora pasa koadernotxoa amaitu arte.
- \* Okertzen bazara, erantzun hori ezaba dezakezu eta zure ustez zuzena den erantzuna marka dezakezu.

EZ ZAITEZ HURRENGO ORRIALDERA PASA PROBA AZALTZEN ARI ZAIZUN PERTSONAK HORRETARAKO BAIMENA EMAN ARTE ETA BETE ITZAZU BERE AGINDUAK.

## Txikitako lagunik onena



Juan Luis Zabala

Lontxo izan nuen lagunik onena txikitán. Lorenzo Abel Martín zuen izena; Larrañaga Zialzeta lehen bi deiturak; Larrume familiaren izena, aita zenaren baserritik hartua. Etxepe berean bizi ginen, Azkoitian, Urrategirako bideko Etxe Iru-Arte etxean. Laugarren pisuan ezkerrean bera, Lontxo; bigarren pisuan eskuinean ni. Baina noiznahi ginen bata bestearenean. Elkarrekin joaten ginen egunero eskolara. Behin, ilunabar batean, etxe atarian, kaniketán jolasten haserretu eta gero, elkar joka hasi ginen, borrokan. Baina biharamunean ere elkarrekin joan ginen eskolara. Lotsa eman zigun elkartzek, baina lotsa handiagoa emango zigukeen elkarrekin ez joateak.

Lontxo eta biok lotsarik gabe egon gíntezkeen biluzik elkarren aurrean, baina inoiz elkarri ipurdia ikusi gabe. Kontu hori, ipurdia ez ikustearena, idatzi gabeko legea zen, tabua, ez dakit nik nondik sortua. Behin, Lontxo kaka-eginean ari zen bere etxeko komunean, atea zabalik utzita; eta ni, ate paretik, harekin lasaitasun osoz berriketan ari nintzen. Lontxo, ez dakit nola eta zergatik, estropezu egin eta aurrerantz erori zen. Orduan ni ate paretik kendu nintzen, Lontxoren ipurdia ez ikustearren. Hori da behintzat nik oroitzen dudana.

Oso mutil bizia zen Lontxo. Futbolari ona; txikia, bizkorra, bihurria, iheskorra, atzemanezina. Telebistan edo egunkarietan Nihat ikusten dudanean, Lontxo dakarkit beti gogora. Beste kirol batzuei ere ez zien muzin egiten, eta bolada batean biok batera bizikletan hara eta hona elkarrekin ibiltzeko ohitura hartu genuen, Bergararaino, Mutrikuraino, Zarautzaino, Ordiziaraino...

Neskatarako ere abildade handia izan zuen oso-oso gaztetatik. Bera izan zen gure koadrilan neska batekin ibiltzen hasi zen lehena. Oraíndik ere ikusten ditut Maite eta Lontxo, elkarren ondoan Azkoitiko kale nagusian gora eta behera, eskutik helduta, igande arratsalde batean, bikote batek horrelako egoeran ibili behar duen baino askoz azkarrago ibiltzen, urduritasunaren eraginez. Baina kalean gora eta behera ibiltze hutsaz haratagoko bikote-zereginak ere oso gazterik eta oso bizkor deskubritu zituen, beste batzuek baino askoz lehenago; nik baino askoz lehenago, esate baterako.

Ez dakit zehatz-mehatz noiz, zenbat urterekin, baina poliki-poliki etengabe elkarren berri duten lagun min izateari utzi genion Lontxok eta biok, etxepe berean bizitzeari eta adiskide handiak izateari utzi gabe. Gure koadrilako beste kide bat izan zen ondorengo urte horietan Lontxoren lagunik minena: Kope.

Futbola utzita, dantzari eman zizkion onenak Lontxok urte horietan. Azpeitiko Sahatsa taldean oso maitea izan zuten. Lontxok garai hartan izan zuen beste zaletasun handi bat rock musika izan zen. 70 eta 80ko hamarkadako rock musikako disko bilduma bikaina osatu zuen, eta David Bowie zuen gogokoena, kutunena. Gai horretan Kope zen koadrilako jakintsuena eta aurreratuen, eta zaletasun horretan bat egin zuten biek.

Orain arte esan ditudan guztiak kontu jakinak dira Lontxo ezagutu zuen edonorentzat. Ez dut uste, ordea, horren kontu jakina denik Lontxok Benito Lertxundirenganako bolada batean izan zuen zaletasuna. Sahatsakoekin dantza egiten eta Koperekin rock musika entzuten hasi aurretik izan zen hori.

Gure etxean, ez dakit nik nork ekarriak, Benito Lertxundiren hiru disko zeuden: Oro laño mee batek..., Eta maita herria üken dezadan plazera... eta Zuberoa / Askatasunaren semeei. 14 eta 15 bat urterekin disko haietako kantu guztiak buruz ikasteraino entzun genituen, gozamen eta miwesmen handiz, Lontxok eta biok. Baita zubererazko hitzak zituztenak ere: Jaun baruak, Xori erresiñula, Ürzo lüma gris gaixoa, Maria Solt eta Kastero... Grazia handia egiten zigun Lehen floria kantuko azken ahapaldiko "gitian txosta kanberan" misterioitsu eta kitzikagarriak.

Zuberoa / Askatasunaren semeei disko bikoitza entzuten ari ginen biok, sala txikian, Jenaro Lekuona, Azkoitiko parrokiako erretorea, gure etxera etorri zenean. Gure aita zena, minbiziaren ondorioz, azkenetan zen, eta hari azken olioak, edo erlijioaren bidezko nolabaiteko kontsolamendua, ematera etorria zen Jenaro. Sotanarik gabe ibili ohi zen. Apez gazte, moderno eta dotorea zen; oso gazte, oso moderno eta oso dotorea, Don Quintin, Don Joaquin, Don Anastasio eta herriko beste apez batzuekin konparatuz gero behintzat. 1978ko udazkena zen; 15 urte genituen, beraz, Lontxok eta biok, hark artean ere bete gabeak akaso, Sanmartin egunekoa baitzen, azaroaren 11koa. Ez dakit kontziente izan nintzen orduko hartan erretorearen bisitaren motiboaz. Baietz uste dut, amak esana baitzidan ez zegoela aitarentzat esperantzarik, hil egingo zela.

Gure aitarekin egon eta gero, musikak erakarrita, salara etorri zen erretorea, Lontxo eta biongana. Hark ere oso gustuko zituen Benito Lertxundiren diskoak, eta Orbaitzetako olari buruzko bi kantuak jarrarazi zizkigun disko-jogailuan. Elkarrekin entzun genituen hirurok. Hunkidura biziz eta solemnitater lagunduzion erretoreak Benito Lertxundiri Jose Angel Irigarairen hitzak esaten: "Aezkoako mendietan / Auñamendiren magalean / Iratiko oihanaren itzalean / bihotzaren erdian / euri, elur eta laiño / laiño guztien artean / zegoen eta dago, / bakardadean / ixilean, lo / Orbaizetako ola...". Harrigarria eta zirraragarria izan zen hura Lontxo eta biontzat. Ez genuen asko espero Azkoitiko parrokiako erretoreak gure zaletasun musikal harekin bat egitea. Eta nola gainera!

Koperekin batera, motor istripuan hil zen Lontxo, 1987ko urriaren 17an, 24 urte bete gabe artean. Nire txikitako lagunik onena izan zen. Orain hilda dago, eta pena ematen dit hartaz oroitzen dudan guztia, funtsean, testu labur honetan sartzen dela pentsatzeak.

*Berría*, 2005, Udako narrazioak

**1. Zein da testu honen igorlea?**

- A) Juan Luis Zabala
- B) Udako narrazioak
- C) Lorenzo Abel Martin
- D) Benito Lertxundi

**2. Zein da Lontxok eta narratzaileak elkarri ipurdia ezin ikustearen arrazoia?**

- A) Biek oso itsusia zutelako
- B) Behin Lontxo komunean zegoela aurrerantz erori eta bere lagunak ipurdia ikusi ziolako
- C) Biontzat tabua zelako
- D) Ez dakite zein den arrazoia

**3. Zer esan nahi du "ez zien muzin egiten"?**

- A) Ez zituela praktikatzen
- B) Ez zitzaizkiola gustatzen
- C) Beste batzuk ere gustukoak zituela
- D) Ez zuela musean jokatzeko

**4. Nola idatzia dago narrazioa?**

- A) Modu alai batean
- B) Modu desegokian
- C) Modu objektibo batean
- D) Modu hunkigarrian

**5. Zeintzu ziren Lontxoren zaletasun nagusiak?**

- A) Futbola, dantza eta motorrak
- B) Futbola, dantza eta rock musika
- C) Dantza, rock musika eta kotxeak
- D) Futbola, rock musika eta bertsoak

**6. Zein egoeratan ezagutu zuten narratzaileak eta Lontxok Jenaro?**

- A) Benito Lertxundiren emanaldi batean
- B) Lontxoren aitaren hiletan
- C) Denda batean diskak erosten
- D) Narratzailearen aitari azken olioak ematera joan zenean

**7. Elkar ezagutze hori harrigarria eta zirrargarria izan omen zen. Zergatik?**

**ERANTZUN IDAZTEKO EMAN ZAIZUN ORRIAN**

**8. Amaieran zerk ematen dio pena narratzaileari?**

- A) Lontxo motor istripuan hiltzeak
- B) Lontxo z gogoratzen duena testu labur batean kabitzeak
- C) Koperekin berarekin baino denbora gehiago pasatzeak
- D) Berak baino lehenago andregaia izateak

**9. Une batean narratzaileak "Gure aita zena" dio. Zergatik?**

- A) Narrazioaren unean aita hilda zegoelako
- B) Narrazioaren unean bere aita eta ama bananduta daudelako
- C) Une horretan "Aita Gurea" otoitz egiten ari delako
- D) Narrazioaren unean bere aita oraindik bizirik dagoelako

**10. Testuko atal batean euskalki bat aipatzen da. Zein da euskalki hori? Zergatik aipatzen da?**

**ERANTZUN IDAZTEKO EMAN ZAIZUN ORRIAN**

HURRENGO ORRIALDERA **PASA** →

## Leturiaren egunkari ezkutua

“Zerubide” hau txit polita da, parke guztiak bezala. Ez dakit “Zerubide” ote den polita, ala “Zerubide” bera ez dena, hots, bere parketasuna. Hori ez zait axola handirik, ederra dela baizik.

Zuhaizti honetan sartuta, haren kerizpe indargarrian murgildu, eta badirudi beste mundu zoragarri bateko sarreran nagoela. Bihotza ukitzen dit haren olerkiak.

Orain, esaterako, alki batean eserita, urmael txiki biribil bat dut aurrean, neure lagun bakarra. Ez uste izan berak apaindura finak dituenik: iturri apala da guztiz, niri gustatzen zaizkidan bezalakoa: goroldioak berdez margotua, iturburuaren xirripa etengabeaz besterik ez du. Eta hor ari dira txirri herabetiaren tantotxoak, jauzika, uraren ispilua urratzen; eta gainean igerika ari diren hosto-puska arinak, hotzikarak hartuta gisan, gora eta behera mugiarazten.

Arratsalde ederra gaurko hau. Ortzea garbi goialdean, itzalak igikor lurrean, arnagarri haize-bala freskoak, eta landare-usaina.. osasuntsu.

Udaberriaren ederra!

Bakarrik nago, bai, eta ondo halere. Gizonak bere begien aurrean belar izpi bat duelarik, gogaituta dagoela esan al dezake?

Gogorra omen da bakarrik nahitanahiez ibiltzea. Eta, halere, pozik egon ohi gara bakarrik. Nola hori? Zer da bakardadetik ihes eragiten diguna?

**Txillardegi**

### 11. Zerubide Parkea nola deskribatzen zaigu?

- A) Parkeko zuhaitz eta animaliak
- B) Parkea bera, ikuspegi osotik zehaztasunera
- C) Parkeko gauza zehatzak eta gero ikuspegi orokorra
- D) Dagoen gizonak parkea izatea nahiko lukeen bezala

### 12. Zein helburu du autoreak?

- A) Parke isolatu bat isolatua ez den batekin konparatzea
- B) Udazkenaren edertasuna adieraztea
- C) Gizonaren barne egoera deskribatzeko erarekin lotzea
- D) Parkea bakardadetik ihes egiteko leku aproposa dela esatea

### 13. Zer esan nahi du “bihotza ukitzen dit haren olerkiak” metaforak?

- A) Gustura sentiarazten duela
- B) Bihotzean min ematen diola
- C) Olerkiak ez dituela gustuko
- D) Maitasun olerkiak atsegin dituela



**14. Testuan agertzen diren galderak nori zuzendutakoak dira?**

- A) Gizonak bere buruari
- B) Gizonak parkeko olerkariari
- C) Narratzaileak parkeko pertsonei
- D) Narratzaileak parkeko olerkariari

**15. Zein da "haren kerizpe indargarrian murgildu" esaldiaren parekoa?**

- A) Haren argi indargarrian murgildu
- B) Haren itzal indargarritik atera
- C) Haren itzal indargarrian sartu
- D) Haren argi indargarritik atera

## Meteoritoak

Azken urteotan, ohiko diskoetxe guztiak negar batean dabilta etengabe: CDak oso erraz kopiatzen direla, pirateria musika hiltzen ari dela, gero eta etekin gutxiago lortzen dutela... Bizi garen garaian, ohiko diskoetxeen ibilbidea 80ko hamarkadako kaseteek egin dutenaren oso antzeko dela esango nuke: hamar bat urte gehiago biziraun... eta gero desagertu, dinosauruak bezalaxe. Diskoetxe handien kontzeptua bera zaharkituta dago, musika diskoen kontzeptua ere zaharkituta dagoen bezalaxe.

Demagun kanta bat entzun dudala irratan, gustuko suertatu eta erosteko irrikitan nago: autobusa hartu beharko dut hurbilen dudan hiriraino, eta paseotxoan egin beharko musika dendarik hurbilenera. Musika dendara heldu eta diskoaren bila hasi behar... nola zuen izena albumak? Non egongo da sailkatuta? Artistaren estiloaren arabera? Ordena alfabetikoan? Dendariak ezagutuko ote du? Tira, azkenean diskoa aurkitu, kutxara joan, 15-20 euro ordaindu 15 bat kantaren truke, nahiz eta nik bakarra nahi izan, autobusera berriro, eta etxera. Oraingoan zorte ona izan dut, eta CDak berak ez dauka akatsik, ondo entzuten da musika ekipotan, eta ez dut dendara itzuli behar izan susmagarri aurpegiak begiratzen didan dendariari arazoa kontatu eta ondo entzuten den beste disko bat eman diezadan konbentzitzera. Lastima nahi nuen abestia kenduta, beste guztiak batere gustuko ez ditudala!

Beste aukera bat ere badago: kantaren izena apuntatu, internet bitarteko denda batera jo, eta bertan erosi. Prezioa euro bat izaten da gutxi gorabehera, kanta minutu gutxiren buruan daukat ordenagailuan, eta nik entzuteko gogoko ditudan beste kantekin grabatu ahal dut disko batean, neure eta ez beste inoren gustura. Ohiko metodoa baino askoz ere ekonomikoagoa, arinagoa eta, batez ere, askoz ere erosoagoa. Eta, ai!, gaur egun ekonomiak eta erosotasunak agintzen dute.

Gauzak horrela, ez da harrizkoa, betiko diskoak saltzen dituztenak negarrez ibiltzea. Izan ere, euren galera dakarren meteorittoa gure artean daukagu jadanik: interneteko musika dendak dira.

**Joxe Rojas.** *Meteoritoak*

Aizu! aldizkaria, 2005eko iraila-urria

### 16. Zein da testu honen tesia?

- A) Meteoritoak
- B) Interneteko pirateria
- C) Munduaren amaiera
- D) Interneteko musika dendak

17. Testuak uneoro bi kontzeptu konparatzen ditu.

- A) Meteoritoak eta musika dendak
- B) Betiko disko dendak eta internetekoak
- C) CDak eta kasetak
- D) 80ko hamarkadako musika eta gaur egungoa

18. Igorleak bere ikuspegia defendatzeko arrazoi batzuk erabiltzen ditu. Aipatu hiru.

ERANTZUN IDAZTEKO EMAN ZAIZUN ORRIAN

19. Zein izango litzateke "biziraun" hitzaren antonimoa?

- A) Gorde
- B) Bizi
- C) Desagertu
- D) Galdu

20. Igorleak dinosauroen irudia erabiltzen du desagertu den zerbait adierazteko.

- A) Diskoetxe handien negarra
- B) Musika diskoen desagertzea
- C) 80ko hamarkadako kaseteen desagertzea
- D) Interneten bidezko musikaren desagertzea

---

235

21. Legezkoa al da autoreak defendatzen duen aukera? Zergatik?

ERANTZUN IDAZTEKO EMAN ZAIZUN ORRIAN

